

ARANTZAZUN EUSKALTZAINDIA

Oñati, Arantzazu, 2002-VIII-18

*J. L. Lizundia,
Euskaltzaindiaren idazkariorde-kudeatzailea*

Euskal Herrian toki gutxi izango dira, seguru asko, Euskaltzaindiak hainbeste biltzar, jardunaldi, bilkura eta beste egin dituenik.

Hasteko, hiru Biltzar egin ditu Euskaltzaindiak bertan.

1955-V-29. Data hau da ene ustez, lehendabizi Euskaltzaindia Arantzazura datorrena da. Hain zuzen, bertan, bildu zen maiatzeko hileroko bilkura egiteko, Arantzazuko komentuan.

1956-III-23. Donostian, Diputazioan, Ignazio Maria Etxaide buru zelarik egin zuen martxoko hileroko bilera. Azkeneko puntu bezala, honako hau dakar: «Aita Villasantek Arantzazuko jubileo urtea dela eta ia Euskaltzaindiak batzar moduko bat egin dezakeen, jai bat antolatuz, eskatzen du. Aztertuko da asmo au». Hileroko Batzar Agiri zenbait falta ditugu, nahiz eta Nazario Oleagaren etxetik asko ekarri nituen Euskaltzaindira, haren seme-alabak emanda. Interesgarria da urte bereko irailean egin zela Biltzar hori.

* * *

1956-IX-14, 15, 16. Lehendabiziko Biltzarra egin zuen Arantzazun Euskaltzaindiak, frantziskotarren babesari eskerrak. Ez zuen garai hartan beste leku askotan aurkituko aterperik. Esan bezala, aita Villasanteren proposamenez izan zen. Hura izan zen sarrera-hitzaldia egin zuena. Hiru egunetako egitaraua izan zen. Dugun agirietatik ateratako egitaraua. Hiru hizlari bizi ditugu, Fernando Mendizabal, euskarari buruz mintzatu zena eta aita Zabala, Euskal Herrian zehar «bertsolari bila» txostenduna eta Patxi Altuna, «Azpeitiko euskara aztertuz», gaia jorratu zuena. Osotasuna kontuan izanik, bada, proposamen bat bertara Iruñetik bidalitakoa, izenik gabe, nahiz eta orriaren atzekaldean, eskuz idatzitako zerbait aurkitu. Geroztik nor zen jakin dugu, Montero Sagasti tuterarra, hain zuzen duela hilabete pasa hango ikastolakoe-kin Andres Iñigo eta biok izan ginenean omentzeko atera zen izena. Honako hau dio: «los suscribientes...». Juan Garmendia «Zeleta» euskaltzain urgazlea zenak, *Arantzazu* aldizkariaren 1956ko 355. zenbakian, kronika jakingarri bat

egin zuen. Zenbait puntu azpimarratu nahiko nituzke. Xedeak zertarako egin zen, batzar lekuari buruzko iradokizunak ematen ditu, hiru egunetako hiru jardunaldien kronika zehatza eginez. Lehendabiziko egunean izan zirenak: aita Intza, Nazario Oleaga, Pierre Lafitte, Manuel Lekuona eta Luis Mitxelena, mahaiburuan eta Alfonso Irigoien, biltzarraren idazkari lanetan, Nazario Oleaga zen idazkari akademiko. Aita Villasantek egin zuen txostena eta gero aipatutako Patxi Altunak, aita Kandido Izagirrek, Fernando Mendizabalek eta Luis Mitxelenak. Bigarren egunean, mahaiburu Nazario Oleaga, Euskaltzaindiko idazkaria; Bitoriano Gandiaga eta aita Omaetxebarriak, biok frantziskotarrak eta euskaltzain urgazle garai hartan, Graziano Gesaltzakoaren bertso saioa, aita Zabalaren txostena eta arratsaldean, Luis Mitxelena buru zela, J.L. Alvarez Enparantza Txillardegiren hitzaldia: «Euskal literatura idazlan suspengarria». Jose Maria Lojendio, laster, gero, euskaltzainburu izango zenak; aita Villasanteren bigarren txostena; aita Mokoroaren txostena, euskararen bizitzaz. Hirugarren eguneko batzarrari, batez ere, jardun zuen orduan, Antonio Arrue, aita Gastesi, Pierre Lafitte eta Luis Mitxelena zirelarik. Jose Migel Barandiaranek egin zuen hitzaldia eta baita ere, Mitxelenak irakurri, Andoni Urrestarazuk bidalitako Jon Miranderen euskal lana. Aita Iturriak, bestalde, beste txosten bat egin zuen. Aita Agirretxe hori ere, oraindik bizi dugu, euskaltzain ohorezkoa eta bukatzeko, Antonio Arrue euskaltzainak. Zioenez, «200 lagun inguru ginen, kapadun, prakadun edo gonadun. Ura edertasuna, hango alaitasuna, hango jardunak, hango ahoskerak, hango besarkadak eta txalogarriak, Muxikako Enbeita'tar Balendin gazteak, bere aita Kepa zenaren antzera abesten zituenak. Azkenik, denon zutik «Gernikako Arbola» abestu genuen eta frantziskotarren abesbatzak «Agur jaunak» abestu ondoren, bukaturik gelditu zen, egundo ahaztuko ez dugun Arantzazuko euskal batzarra». Bertako ondorioa izan daitekeen agiri bat dakarzueta, 1956ko urriaren 4koa, hain zuzen.

Gerra zibila amaitu eta 17 urtera frankismoaren garairik gorenean, biltzarra egitea eta, han egin ahal izatea, ez da huskeria, ez da gutxiagorik ere. Uste dut Euskaltzaindiak esker ona zor diela ordutik geroztik, Arantzazuko komentuari eta frantziskotarrei.

Hemen ez da urte horretakoa amaitzen, 1956-X-12. Berriz ere urriko batzarra han egitea, Alfonso Irigoien idazkariordeak Euskaltzaindiaren egoitzatik bidalitako adierazpenaren arabera da, Arantzazuko Biltzarren ondorio bezala. Beste xehetasunik ez dugu aurkitu gutun hori baizik.

* * *

1956ko Biltzarraren ondotik Bilbon 1958an, Eibarren 1959an eta Donostian 1966an egiten dira, II., III. eta IV. Biltzarrak. Baina V.ena, berriz ere, 1963an, Arantzazun. Hiztegi itundua eta kultura hitzak gaia jarrita. Irailaren 30ean eta urriaren 1 eta 2an. 1963-64ko *Euskeran* eta 82. orrialdetik 449 orrialderraino. Gai nagusi bezala, aldiz aurretik izendatu zen «Euskal hiztegia eta gaur eguneko beharrak», bi zatitan berezita; «Euskal hiztegiaren iturburua»

eta «Kultura hitzak euskaraz». Honako hau dakar Biltzarraren hitzaldi eta txostenen sarrera edo kronika gisa, kapituluz kapitulu: 1. Sebero Altube, hiztegi arazoetan maisu, aurkezpena; aita Villasanterena, dirudi, argi eta garbi. Altube jaunak izaki aldetik haren lanak. 2. Altube jaunaren kezka nagusiak euskarari buruz, hizkera zaintzeko arauak; Altube jaunaren iritziak euskal hiztegiari buruz; euskaltzain urgazle eta geroago euskaltzain ohorezko izango zen Julene Azpeitiaren txostena irakurri zen, gure ama euskararen alde, lau iritzi. Hurrengokoa, Jose Maria Azpirozen txostena. Han izan nintzen ateraldia izan zen euskalgintza mundura, ibigarren, lehendabizikoa, urte bi lehenago, Donostiako Biltzarrera bidalitako gutuna izan zen, salapartatu suertatu zena eta eztabaidatsu, hain zuzen. Ondo oroitzen naiz Jose Maria Azpirozen hitzaldiaz, hots, Azkueren jaunaren hiztegia osatzeko Nafarroako Leitzaan bildutako hitz bilduma. Orotariko Euskal Hiztegiko corpusean sartua dute, inprentako 19 orritako lan luzea baita?. Azurmendi frantziskotar eta euskaltzain urgazleak egin zuen hurrengo hitzaldi luze eta sakona, «Jakin euskal kulturaren bideak lantzen» deritzana. Inprimategiko 16 orrialde hartzen ditu, hitzaldi honek. Barandiaranen txostena izan zen hurrengokoa, «Euskararen iztegia nola litzaketen» deritzana. Jarraian, «Batasunerako urratsak euskal eta kultur hiztegia» deritzana, Jose Basterretxea «Oskillaso»rena. Hau ere, eztabaidatsua gertatu zen eta ondo oroitzen naiz bere arrakastaz. Imanol Berriatuaren hitzaldia ere niretzat oso jakingarria, Bermeoko arrantzaleen lexikoa deritzana. Ondoren, hara hor zer dioen: «Orain segidu daigun aurrera eta entzun naizue, sasoia da eta, zelako lexikoa darabilen bermeotarrak itsasoan dabiltzanean. Oraintxe urten-go dau Bermeoko portutik oeste afrikarantz eta bidai guztia euskaraz» eta ze euskaraz darabilen azaldu zuen aita Berriatuak. Nikolas Alzola, anaia Berriotxo, euskaltzain urgazleak «Euskal itzen» maiztasuna izeneko txostena bidali zuen, gaixorik zegoelako. Informatika baino lehenago hornitutako txosten maiztasunari buruzko txostena da berau, anaia lasalletar adiskideak egin zuena. Andoni Urrestarazu «Umandi»k bidalitako hitzaldia irakurri zen, euskararen aldeko lan orokor baten egitaraua izenekoa. Joseba Intxaustiren hitzaldi sakona ere entzun genuen. Jean Haritschelhar gaurko gure euskaltzainburuaren txosten bat ere agertzen da, «Zertan den eskuara» deitua. Aita Agirretxearen «Gaurko izlariak eta euskara» izenekoa. Orduko kontestu eta garaian jarri behar dira Biltzar horretako hitzaldi eta txostenak eman ziguten sarrera eta zirrara ulertzeko.

* * *

Eta goazen orain III. Biltzarrera, 1968kora, III. Arantzazun, tartean, 1964an beste bat izan zen Loiolan. Bere Urre Ezteiak zirela eta 1968.eko urriaren 3, 4 eta 5ean. Urte horretako utarrilean Bilboko egoitza zaharrean Gabriel Arestik Euskaltzaindiari egindako proposamena, alegia, Urre Ezteien Biltzarraren gaia, 1968ko *Euskera*, Biltzarrarena hain zuzen, aspaldian agertua da, baina, Manuel Lekuona orduko euskaltzainburuaren hitzekin hasten da euskararen batasuna izenekoarekin eta amaitzen du honako esaldi batekin:

«Arantzazu izan dedila, orain ere, lehen, noizbait bezala, orain 500 urte bezala, bakezko lokarri guztientzat euskararen alde eta honenbestez euskara Arantzazuko fraide frantziskotarrek hiru egun horietarako ematen diguten aterpearen alde eta beste barik, guztiok ongi etorriak zaitzetzela. Manuel Lekuona».

Biltzar honen asmoa, beraz, Literatura euskararen batasunari buruzko Biltzar Nagusia Arantzazun, agertzen da. Hizlariak, batasunari buruzko Eusko Bibliografian, aita Luis Villasantek egindako deklinazioa. Salbador Garmendiak igorritako txostena deklinazioari buruz. Euskarazko hitz berriak izeneko batasunaren batzordeak egindako lana. Beste zalaparta sortu zuen adierazpena, hots, literatura euskararen batasunari buruz, Euskaltzaindiaren agiria, Arantzazu-Oñati 1968ko urrilaren 25ean.

* * *

Beste ildo garrantzitsu bat, euskararen batasunerako garrantzitsuenetarikoa, seguru asko, Aditz Batua izan zen, hori bi jardunaldietan egin zen, hasi Bilbon egoitza zaharrean eta amaitu oraintxe, justu, duela 30 urte 1972.eko uztaileko Euskaltzaindiaren hileroko batzarrarekin batera, hemen, Arantzazun. Batzorde bat sortu zen, Luis Mitxelena buru zelararik, Pierre Lafitte eta Imanol Berriatua kide eta Patxi Altuna idazkari eta gero kontseilu atal bat. Uztailaren 27, 28 eta 29an egin ziren Jardunaldi horiek eta garrantzitsuena 29an, Euskaltzaindiaren onarpena izan zen. Euskaltzaindiko euskaltzainez landa, Patxi Altuna, Imanol Berriatua, Joseba Intxausti, Xabier Kintana euskaltzain urgazleez gain, idazkariorde-kudeatzaile nintzelarik, 1973ko *Euskeran* dator horren azalpena eta egindako kronika. Ezagutu duzue, hainbeste aldiz barriatu dena, besteak beste, Joan Mari Torrealdairen *Euskal Idazleak* liburuaren hedapenez. Jardunaldi horiek izan zuten eztabaida sakona eta oparoa. Azken baten, irizpen bateratu batera iristeko. Ni antolatzaile nintzen eta ez nuen eztabaidetan parterik hartu, lekuko bai, ordea. Eta nola Euskaltzaindiak hain azpiegitura urria zuen, aipatu beharra dut hemen, izan nuela frantziskotar baten laguntza, Bitoriano Gandiaga, zeini eskatu bainion laguntzeko eta berak egin zidan «botillero», hark esaten zidanez, pilota jokoko frontoi baten balitz bezala, «botillero», besteak beste, «zerbeza eta ura iretako, bizkaieraz, esan zidan: iretako» Botellak garraiatzeagatik, «botellero»aparta eta dohainekoa izan nuen.

* * *

1974ko apirilaren 19an ere hemen izan genuen batzar bat, seminario berrian. 1993.eko irailaren 30ean ere Arantzazuko Gogartetxean izan genuen batzarra.

Eta 1993ko urriaren leian ere bai, 75. urteurrenaren batzarrak eta ospakizunak prestatzeko, gero, Oñatin, Unibertsitatean, jarraipena izango zuena. Egun horretan ospakizuneko bilera bat izan zen eta ez ospakizunekoa bakarrik. Hantxe onartu zen 1994ko urrian Leioan egin zen XIII. Biltzarraren egitaraua. Jakingarria da *Jagon* Sailari buruzko deia, Andres Urrutia eta nik ba-

tzorde idazkari orduan eta Mikel Zalbidek prestatutakoa. Orobat, beste Jardu-aldien Lexikologiakoak, Donostian; Gramatikakoak, martxoan, Iruñean; Hiztegi Batukoak, Gasteizen, apirillean; Ahoskerakoak, maiatzean, Bilbon, egoitzan; Onomastikakoak, ekainean, Miarrizten; Literaturakoak, Donostian, uztailean eta *Jagon* Sailekoak, Bilbon, otsailean. Beraz, programa oso bat hementxe bertan, Arantzazun, aztertu zen.

* * *

Hauetz landa, beste zenbait lan bilera, dozenaka egin genituen, bereziki, Euskaltzainburuak eta biok, hilerok hilerok etortzen bainintzen bertara, A. Villasanterekin «despatxatzen, Hark esaten zuen legez», hileroko batzar gaiak, *Iker* sailburuari, Mitxeleneri, deiak egiten, Salamanca, nahiz Gasteizera, nahiz Erreteriarra, Juan San Martin edo Jose Mari Satrustegi idazkariei eta abar. Noizbait egin beharko dut egutegi oso bat, ikerketak eginaz, despatxatze lan bilkura horiek egutegi zehatza zuten, zeren eta Jose Antonio Arana Martijak egoitzara eraman baizituen Villasanteren koadernoak, bilkura horietakoak, gairik gai, despatxatzeko zituen galderak, erantzunak eta abar. Ez bakarrik hori, baita ere Juan Jose Zearreta, Ricardo Badiola, Jose Antonio Arana Martija, Bibliotekako zuzendari zelarik, Rosa Mari Artza (†), Bego Amundarain eta beste Euskaltzaindiko langileekin lan bilera asko egin ditugu Arantzazun. Inoiz Zuzendaritzako kideek ere, denak edo batzuk, hala nola, prestatzeko «Euskaltzaindiaren eginkizuna argitalpenetan», Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak eskatuta eta baita ere Bizkaiko Diputatuak Nagusiak. Txosten zehatz bat prestatu genuen, hura buru zelarik, bi egunetako lana, zoritxarrez, estrategi horrek ez zuen behar den adineko onarpenik lortu. Ez dakit arreta gehiegirik izan zuenik ere.

Esango nuke Euskaltzaindiaren bigarren egoitza zela Arantzazu, gehiegizko konparaketa baldin bada ere. Euskaltzaindiaren «Lehendakaritza» hemen zegoen, ganorazko egoitzarik ere ez genuelako eta, ordezkaritza bakar bat, Donostian, bera ere urria, Gipuzkoako Diputazioak osoko bilkuretarako erraztasunak ematen bazigun ere. Azpiegiturez, han ere urri geunden, idazkari bakar batekin, Maria Pilar Lasarterekin, alegia. Arantzazuko komentuan eta gardianoak A. Luis Villasante, ia debaldetan, urte askotan, eta gero ere, gutxi ordainduta, izan ez balitz, Euskaltzaindiaren, Hizkuntza Akademiaren zerbitzurako eta hemengo azpiegiturearekin, haren gela txiro eta guzti. Despatxatzeko, ordea, porteriaren ondoko bisita gela bat erabiltzen genuen eta inoiz bi, laguntzailearen batekin joaten bainintzen. Horrela, hospederia hau izaten zen, bazkal ostean, bigarren «despatxu-gela».

A. Villasanterengana, azkenengoz, 2000ko apirilaren 5ean etorri ginen Euskaltzaindiko eragile teknikaria dugun Pello Telleria brinkolarra eta biok.

Hemendik lau urtera 50 urte beteko dira Euskaltzaindiaren gerra osteko I. Biltzarra egin zela. Egia esan, gerra aurreko biak, 1921ean, Durangon, eta,

1923an, Donezteben, egindakoek beste izen bat zeramaten «Euskalegunak», hain zuzen, eta Euskaltzaindiaren kontaketa ez dira Biltzar gisa kontaktzen. Mereziko luke «Urre Eztai» ospakizun legez, Biltzar bat antolatzea. Agian, ordurako, Gipuzkoako Diputazioak, Eusko Jaurlaritzak eta frantziskotarren Ordenak Arantzazurako dituzten egitasmoren bat inauguratzeko moduan izan daiteke. «Kultur topaleku berria Arantzazun», zioen *Euskaldunon Egunkariak* 2001eko irailaren 6an; «Arantzazu se renueva para seguir siendo una referencia cultural», DEIAk, data berebean; «Arantzazu contará con un centro cultural...» GARAK, data berebean. Hala biz!

Eskerrak, beraz, Arantzazuko komentuari eta frantziskotar ordenari eta nola ez, ordenako agintariei: Probintzial, Guardiano eta besteri.